# World Press photo 2017, azaroaren 19ra arte ikusgai Gasteizen

**Montehermoso kulturuneko ur-biltegi ohian izango da erakusketa, asteartetik igandera (ordutegia: 11:00 – 14:00 eta 18:00 -21:00)**

World Press Photo, argazki-kazetaritzakonazioarteko lehiaketarik azpimarragarriena, aurten ere etorriko da Gasteizera, hamabosgarrenez jarraian. Zifrek, nola ez, beti islatzen dute lehiaketa honek komunikazio grafikoaren arloko profesionalen artean pizten duen interesa; hain zuzen ere, 126 herrialdetako 5.034 argazkilariren 80.408 irudi bildu ditu edizio honetan. Azkenean, epaimahaiak 143 hautatu ditu, eta erakusketa honetan egongo dira ikusgai.

Aurten, lehiaketa irabazi duen irudia une-uneko argazki-kazetaritzaren adibide ezin hobea da, Errusiako enbaxadorea Turkian erakusketa batean hil zuten unea islatzen baitu. Irudia ibilbide luzeko Burhan Ozbilici berriemaile turkiarraren eskutik iritsi zaigu. Argazki ikusgarri hau bere gordintasunagatik eta inguru aseptikoagatik gailentzen da. Parekorik ez duten une dramatiko hauekin batera, hainbat hilabeteko edo urteko epean zehar ateratako argazkiekin josi diren istorioak aurki ditzakegu, besteak beste Ukrainaren egun beltzetakoak eta oso inguru desberdinetako eguneroko bizitzakoak (hala nola Iranekoak eta Nebraskako herrixka batekoak).

Eraginaren eta ekinaren muga hauen artean topa ditzakegu, era berean, Sioux-ek oliobidearen kontra izan duten borroka, Fidel Castroren heriotzaren ondoriozko dolua, hankarik eta besorik gabeko emakume batek kirolari bihurtzeko egin duen ahalegina, Filipinetan drogen kontra martxan jarri zen eraso bortitza, eta beste hamaika istorio interesgarri, hunkigarri eta harrigarri.

Aurtengo edizioan, aurkeztu diren 5.000tik gora argazkilariren arteko 222 izan dira espainiarrak, eta hiru hautatu dituzte erakusketa honetarako: Francis Pérez (naturaren arloko irabazlea), Jaime Rojo eta Santi Palacios.

WorldPress Photo 2017 Montehermosoko Kulturuneko ur-biltegi zaharrean egongo da ikusgai,**urriaren 20tik azaroaren 19ra**, asteartetik igandera (jaiegunetan ere bai), ordutegi honetan: 11:00-14:00 eta 18:00-21:00. Astelehenetan itxita egongo da. Iaz bezala, bisita gidatuak egingo dira euskaraz eta gaztelaniaz.

# World Press Photo 2017 vuelve a Vitoria-Gasteiz hasta el 19 de noviembre

**Estará expuesta en el antiguo depósito de aguas del Centro Cultural Montehermoso en horario de 11 a 14h y de 18 a 21h de martes a domingo**

World Press Photo, el certamen internacional más destacado del mundo vuelve a Vitoria-Gasteiz, una cita que se repite ininterrumpidamente desde hace 15 años. Como siempre las cifras reflejan el interés que despierta entre los y las profesionales de la comunicación gráfica: 80.408 imágenes de 5.034 fotógrafos procedentes de 126 países. Finalmente el jurado selecciono 143 fotos que componen la presente exposición.

Este año, la imagen ganadora es un ejemplo exacto de fotoperiodismo de oportunidad: el asesinato del embajador ruso en Turquía durante una exposición. Foto del veterano reportero turco Burhan Ozbilici. Imagen impresionante por su crudeza y aséptico entorno. Junto a estos instantes, dramáticamente únicos, encontramos historias tejidas con fotografías tomadas a lo largo de meses e incluso años como los días negros de Ucrania o las “cotidianidades” tan distintas como la iraní o la de un pequeño e inmutable pueblo de Nebraska.

Entre estos límites del impacto y la constancia aparecen la lucha de los indios Sioux contra un oleoducto, el duelo por la muerte de Fidel Castro, el ejemplar empeño de una mujer sin brazos ni piernas para convertirse en deportista, la brutal ofensiva contra las drogas en Filipinas y docenas de historias plenas de interés, emoción y sorpresa.

En esta edición, de los más de 5.000 fotógrafos presentados, 222 fueron españoles y de ellos 3 lograron la selección para esta muestra: Francis Pérez -ganador del apartado naturaleza-, Jaime Rojo y Santi Palacios.

World Press Photo 2017 estará abierta al público en el antiguo depósito de aguas del Centro Cultural Montehermoso del **20 de octubre al 19 de noviembre** en horario de 11 a 14h y de 18 a 21h de martes a domingo incluidos festivos. Lunes cerrado. Como el año pasado se ofrecen visitas guiadas en euskera y castellano.